

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

# Literatura unibertsala

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2015eko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

Aukera bakoitzean, 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren gainerako edukiekin lotuta dago.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2015eko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

## TESTUA

“Egia da, bai! Urduria izan naiz beti, ikaragarri urduria, eta halakoxea naiz orain ere; baina eroa naizela, zergatik diozue hori? (...) Entzun! Entzun zeinen osasuntsu, zeinen lasai kontatzen dizuedan istorio osoa.

Ezin esan dut ideia hura aurrenekoz nola etorri zitzaidan burura; baina behin sortuz gero, gau eta egun zebilkidan buruan. Helbururik ez nuen batere. Ez nuen grinarik sentitzen. Maite nuen agurea. Ez zidan sekula okerrik egin. Sekula ez ninduen iraindu. Ez nuen haren urrea desiratzen. Agurearen begia izan zela uste dut. Horixe izan zen, bai! Sai baten begia zuen: begi urdin argi bat, ganduak lausotua. Odola izozten zitzaidan begi hura nigan finkatzen zuenean; eta, hala, urratsez urrats, pixkana-pixkana, agurea hiltzera deliberatu nintzen, begi hartatik betiko libratzeko.(...)

Sekula ez nintzen adeitsuagoa izan agurearekin hil nuen aurreko astean baino. Eta gauero-gauero, gauerdialdera, agurearen gelako ateko kisketa jiratu eta zabaltzen nuen, eta nolako arretaz gero! Ondoren, atea burua sartzeko adina zabaldua nuenean, kriseilu bat jasotzen nuen, itxi-itxia, ondo itxia, argirik batere ez zedin izan, eta orduan burua sartzeko nuen. (...) Eta orduan, burua osorik gelaren barruan neukanean, gontzek zarata ateratzen baitzuten, kontuz-kontuz hasten nintzen kriseilua zabaltzen, pixka bat zabaltzen nuen, argizpi bakar batek jo zezan saiaren begia. Eta horixe egin nuen zazpi gau luzez —gauero gauerdian—, baina itxita aurkitzen nuen beti begia, eta ezin izaten nuen lana burutu; zeren agureak ez baitzidan okerrik egiten, haren Begi Gaiztoak baizik.(...)

Zortzigarren gauean ohi baino arduratsuago ibili nintzen atea zabaltzerakoan.(...) Burua barruan neukala, eta kriseilua zabaltzekotan nintzela, hatz lodia irristatu zitzaidan itxitura metalikoan, eta agurea ohe gainean eseri zen, oihuka: «Zein dabil hor?»

Geldi-geldirik geratu nintzen, ezer esan gabe. Ordu oso batez ez nuen gihar bat bera ere mugitu, eta denbora horretan guztian ez nuen agurea etzaten entzun. (...) Luzaroan zain egon ondoren, pazientzia handiaz, eta berriz etzaten zenik ez bainuen aditzen, kriseilua pixka bat zabaltzea erabaki nuen, pixka-pixka bat besterik ez. (...) izpi mehe bakar bat, armiarma baten haria bezalakoxea, irekiduratik atera eta sai-begia bete-betean jo zuen arte.

Zabalik zegoen begia, zabal-zabalik, eta haserre hartu ninduen begira nengokiola. (...) Une hartantxe, izan ere, hots apal, sor, laster bat iritsi zitzaidan belarrietara, erlojuak kotoian bilduta daudenean egiten dutena bezalakoa. Ederki ezagutzen nuen hots *hura* ere. Agurearen bihotzaren taupada zen. (...)

Bitarte hartan indartzen ari zen bihotzaren taupada. Lasterragoa egiten zen, eta ozenagoa, unean-unean. Izugarria izan behar zuen agurearen ikarak! Gero eta ozenagoa egiten zen, esan dudana bezala, unean-unean ozenagoa! (...) Bihotza lehertuko zitzaidala iruditzen zitzaidan. Eta beste kezka bat bururatu zitzaidan orduan: auzokoren batek ere entzun zezakeen hots hura! Irtisia zen agurearen ordua! Oihu ozen batez, kriseilua erabat zabaldu eta gelan sartu nintzen. Behin egin zuen agureak garrasi, behin bakarrik. Segundo batean arrastatu nuen lurrera, eta haren gainera bultzatu nuen ohe astuna. Pozaren pozez, irribarre egin nuen, eгина baitzen egitekoa.(...) Oraindik ere burutik eginda nagoela uste baduzue, ez duzue halakorik gehiago pentsatuko, gorputza ezkutatzeko hartu nituen lan eta nekeen berri ematen dizuedanean. (...) Lurreko hiru ohol altxatu nituen gero, eta zulo hartan ezkutatu nituen gorpu-hondakinak. (...)

Goizeko laurak baziren lan haiek guztiak amaitu nituenerako, eta oraindik ere gauerdian bezain ilun zegoen. Erlojuak ordua jo zuenean, ate joka ari zirela entzun nuen. Lasai-lasai joan nintzen atea zabaltzera. Izan ere, zeren beldur izan behar nuen *orain*? Hiru gizon sartu ziren, eta oso adeitsu aurkeztu zituzten beren buruak poliziako ofizial gisa. Auzoko batek garrasi bat entzun omen zuen gauerdialdean, eta erasoren bat-edo izan ote zen pentsatu zen.(...) Irribarre egin nuen; izan ere, *zeren* beldur izan behar nuen? Ongietorria egin nien. Garrasia, esan nien, neuk egin nuen, ametsetan ari nintzela. Agurea, esan nuen, kanpoan zen, mendialdean.(...), eserlekuak hartu, gelara eraman, eta *hantxe*



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2015eko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

eskaini nien beren nekeen atsedena; eta nik, nire garaipen betearen ausarkerian, biktimaren gorpua zegoen lekuaren gain-gainean jarri nuen neure aulkia.

Lasaituta geratu ziren ofizialak. Nire *manerek* konbentzitu zituzten. (...) Baina, denbora puska baten ondoren, zurbiltzen ari nintzela konturatu nintzen, eta alde egin zezaten desiratu nuen. Buruko minak nengoen, eta burrundara moduko bat sentitzen nuen belarrietan: baina ofizialek eserita eta berriketan jarraitzen zuten. Burrunda zehatzagoa egin zen (...)

Dudarik gabe, zuri-zuri jarri nintzen; baina etorri handiagoaz mintzatu nintzen, eta ahots goragoaz. Baina hotsa indartzen ari zen; eta nik zer egin nezakeen? *Hots apal, sor, laster bat zen, erlojuek kotoian bilduta daudenean egiten dutena bezalakoa.* (...) Zutitu eta huskeriez jardun nintzen, garrasi bizian eta sekulako imintzioak eginez; baina hotsa ozenagoa egin zen. Zergatik ez zuten alde egiten? (...) Jainkoarren! Zer egin *nezakeen?* (...) Atzera bota nuen eserita egon nintzen aulkia, eta arrastaka eramane nuen oholen gainean, baina hotsa denen gainetik altxatzen zen, eta etengabe areagotzen zen. Ozenagoa, ozenagoa, *ozenagoa* egin zen! Eta hala ere lasai jarraitzen zuten gizonek berriketan eta irribarrez. Jainko ahaltzua! Ez, ez! Entzuten zuten! Susmatzen zuten gertatua! (...) Ezin nituen irribarre faltsu haiek eramane! Garrasi egin behar nuela sentitu nuen, hilko bainintzen bestela! Eta orduan... Berriz! Entzun... Horra... Ozenago! Ozenago! Ozenago! *Ozenago!*

—Ez itxurarik egin, nazkagarri horiek! Aitortzen dut, hil egin dut! Altxa itzazue oholak! Hara hor! Bihotz doilor horren taupada da!

2015

## A AUKERA

1. Azaldu itzazu Errenazimentuak dakarren munduaren aldaketak eta gizakiari buruzko ikuspegi berria eta erakutsi, adibideen bidez, bere eragina garaiko Literaturan. Aipatu mugimendu honen bi idazle eta bi literatur lan esanguratsu. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako pasartea zer obratakoa den, eta adieraz itzazu izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatzen den. Aldi historiko hura kontuan izanik, azaldu ezazu zer genero literariorik dagokion testua eta eman zure erantzunaren zergatia. (2 puntu)
3. Azaldu itzazu zer literatura-baliabide eta hizkuntza-prozedura erabiltzen dituen egileak testuari adierazkortasuna emateko eta terrore sentimendua sorrarazteko. Erabil itzazu testuko adibideak erantzuna ilustratzeko. (3 puntu)
4. Zein da, zure ustez, narrazio horren gaia? Badu loturarik gizakien gaur egungo kezkekin? Gaur egungo adibide edo egoera batekin lot zenezake? Argudia itzazu zeure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin. (2 puntu)

## B AUKERA

1. Azaldu itzazu poesia surrealistaren ezaugarri nagusiak, koka ezazu bere testuinguru historikoan eta erlazioa ezazu surrealismoaren beste adierazpen artistiko batzuekin. Eman itzazu poesia surrealistaren bi egile eta bi la adierazgarriren izenak. (3 puntu)
2. Identifika ezazu goian idatzitako pasartea zer obratakoa den, eta adieraz itzazu izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatzen den. Aldi historiko hura kontuan izanik, azaldu ezazu zer genero literario dagokion testuari eta eman zure adierazpenaren zergatia. (2 puntu)
3. Komenta ezazu Erromantizismoaren berezko zer elementu agertzen diren testuan. Halaber, azaldu ezazu terror-narrazioaren zer ezaugarri agertzen diren pasarte horretan. Erabil itzazu testuko adibideak zure erantzuna ilustratzeko. (3 puntu)
4. Zein da, zure ustez, narrazio horren gaia? Badu loturarik gizakien gaur egungo kezkekin? Gaur egungo adibide edo egoera batekin lot zenezake? Argudia itzazu zeure erantzunak, eta erlazioa itzazu zeure bizipen eta iritziekin. (2 puntu)



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### LITERATURA UNIBERTSALA

#### ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

##### OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

##### A AUKERA

###### 1. galdera (3 puntu)

- Errenazimentuak dakarren munduaren aldaketak eta gizakiari buruzko ikuspegi berria azaltzea: 1 puntu.
- Garaiko Literaturan, aldaketa hauek duten eragina azaltzea: 1 puntu.
- Eragina honen adibidea zuzenak ematea: 0,5 puntu.
- Bi idazle eta bi literatur lan esanguratsu aipatzea: 0,5 puntu.

###### 2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra...) identifikatzea: 0,5 puntu.
- Genero literarioa identifikatzea eta erantzunaren bi arrazoi ematea: 1,5 puntu.

###### 3. galdera (3 puntu)

- Testuan adierazkortasuna emateko eta terrore sentimendua sorrarazteko, literatur baliabideak identifikatu eta azaltzea: 1 puntu.
- Testuan adierazkortasuna emateko eta terrore sentimendua sorrarazteko, hizkuntza prozedurak identifikatu eta azaltzea: 1 puntu.
- Testuko aipamenak erabiltzea erantzuna emateko: 1 puntu.

###### 4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### B AUKERA

#### 1. galdera (3 puntu)

- Erakustea badakiela zer den poesia surrealista: 1,5 puntu.
- Poesia surrealista abangoardien testuinguru historikoan kokatzea: 0,5 puntu.
- Surrealismoaren beste adierazpen artistiko batzuk (pintura, zinema) ezagutzea: 0,5 puntu.
- Bi egileren eta lanen izenak aipatzea: 0,5 puntu.

#### 2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra...) identifikatzea: 1 puntu.
- Genero literarioa identifikatzea eta erantzunaren bi arrazoi ematea: 1 puntu.

#### 3. galdera (3 puntu)

- Testuan agertzen diren Erromantizismoaren berezko elementuak identifikatu eta azaltzea: 1 puntu.
- Testuan agertzen diren terror-narrazioaren ezaugarriak identifikatu eta azaltzea: 1 puntu.
- Testuko aipamenak erabiltzea erantzuna emateko: 1 puntu.

#### 4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematea.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzea.
- Gai izatea obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai izatea irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.